



Nilo ibaia



Piramidea



Faraolia




Hieroglifoak



Momia



Sarkofagoa




Ontzi kanopoa



Obeliskoa



Papiroa



Senet



Horus-en begia



Ankh



Nilo ibaia



Piramidea



Faraonia




Hieroglifoak



Momia



Sarkofagoa




Ontzi kanopoa



Obeliskoa



Papiroa



Senet



Horus-en begia



Ankh

Nilo Afrikako ibairik handiena da eta mendeetan zehar munduko ibairik luzeentzat hartu zen. Nilo Antzinako Egiptoko zibilizazioaren garapenerako funtsezko elementua izan zen. Hiri gehienak Niloko bailaran eta deltan kokatuta zeuden.

Nilo ibaia

Egiptoko piramideak antzinako egiptiarrek utzitako ondare guztien artean monumentu harrigarrienak eta adierazgarrienak dira.

Piramidea

Faraioia Antzinako Egiptoko erregeari deitzeko izendapen biblikoa da. Antzinako egiptiarrentzat lehenbiziko faraoia Narmer izan zen, k.a. 3059. urtean gobernatu zuena. Azkeneko faraoia emakume bat izan zen: Kleopatra VII.ena.

Faraioia

Hieroglifoak egiptiarrek asmatutako idazketa sistema bat izan zen. Zeinuen erabilera dute ezaugarri eta hauen esanahia Rosetta harriko testuen deszifratzeari esker ezagutzen dira.

Hieroglifoak

Momia kontserbazio egoera onargarrian dagoen hildako gizaki edota animalia baten gorpuari deritzo. Heriotza aspaldi gertatu izan arren, gorpuak kontserbatu izan da balsamenduaren bitartez edo inguruabar naturalak direla eta.

Momia

Sarkofagoa, gorpu bat gordetzeko harriz landutako ontzi bat da. Antzinako Egipton, errege-sarkofagoak egurrezko hilkutxa batez osatuta zeuden behintzat. Bertan, alde aurretik baltsatutako hildakoaren momia zaintzen zen.

Sarkofagoa

Antzinako Egipton ontzi kanopoa hildakoen erraiak gordetzeko erabiltzen zen. Aldez aurretik erraiak garbitu eta baltsatzen zituzten eta ontzi kanopoa gorderik, gorpuaren irudi unitarioa mantentzen zuten.

Ontzi kanopoa

Obelisko bat zutabe formako harri-monumentu bat da. Ardatz karratua du, lau alde trapezoidal berdinekin eta goian piramide txiki bat errematatzen. Antzinako obeliskoak harri bloke bakar bat erabiliaz landu ziren.

Obeliskoa

Papiroa Nilo ibaian komuna den landare akuatiko batekin egindako idazketa euskarria da. Egunerokotasunean erabiltzen ziren hainbat objektu egiteko erabilia izan zen. Bere funtsezko erabilera antzinako eskuizkribuen euskarri gisa izan zen.

Papiroa

Senet-a Antzinako Egipton asmatutako mahai- jolas bat da. Garai horretan ospe handia lortu zuen eta nahiz eta ospe hori denboraren poderioz galdu, ezagutzen dugun mahai- jolas zaharrenetariko bat da.

Senet

Horus-en begia, Udyat «osorik dagoena», ezaugarri apotropaiakoak zituen sinbolo bat izan zen; hots, ezaugarri magikoak, babesleak, garbitzaileak, sendatzaileak zituena. Eguzki-sinbolo honek ordena adierazten zuen, erotu gabea, egoera perfektua.

Horus-en begia

Ankh-a, "bizitza" esan nahi duen hieroglifo egiptiarra da. Kultura honetako ikonografian asko erabilitako sinboloa da. Kirtendun gurutzea, "bizitzaren giltza" edo "gurutze egiptiarra" izenez ezaguna da ere.

Ankh